

2018/11/23

PUBLIZITATEA

KULTURA

«Bizkaia zuriari» koloreak atera dizkio Edorta Jimenezek bere azken eleberrian

Urte batzuk igaro dira Edorta Jimenezek azken eleberria plazaratu zuenetik, baina «Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua» lan berriak irakurlearen gosea aise aseko du. Eleberri beltza da Mundakako idazleak labetik atera duena, ironiaz eta umorez, baina zorrotz, Bizkaiko gizartea galbahetik pasazten duena. Mezu ofizialez harago dagoen «errealitate beltza» azaltzen zaigu liburuan, aurkezpenean egon ziren Iñigo Cabacasen gurasoek ondo ezagutzen dutena.

IKER BIZKARGUENAGA | BILBO

INPRIMATU

BIDALI



Bilboko Indautxu auzoan dagoen Kurruli kultur elkartean egin zuen atzo Edorta Jimenezek bere azken lanaren aurkezpene. Toki aproposena, ziurrenik, «Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua»-ren berri emateko. Izan ere, herriko taberna haren kanpoaldean hil zuen Ertzaintzak duela sei urte eta erdi Iñigo Cabacas, eta eleberri beltz horrek gure herrian Poliziak dituen jokamoldeez, agintarien jarrereaz, botereaz, ustelkeriaz eta egungo jendartea ezaugarritzen duten ertz guztiei buruz hausnarketa egiteko bidea irekitzen du.

«Nobela honek gure garaiaz gogoeta egiten du», laburbildu zuen idazle mundakarrak. «Galderaz betetako liburua da», azaldu zuen aurretik Txalaparta argitaletxeko kide Jon Jimenezek. Honek adierazi zuenez, egungo gizarteari erreparatuta, «galdera pertinentek» dira 400 orrialde baino gehiago dituen liburuan azaltzen diren guztiak.

Galderak, eta kezka baita ere. Azken hauek, hiru motatakoak: «politiko-literarioa, soziala, eta humanoa edo filosofikoa». Lehenak euskal literaturak «errelatoarekin daukan harremana» jorratzen du, hots, euskaraz egiten diren eleberriek nola kontatu behar duten herri honen historia. Kezka hori, Jon Jimenezek adierazi zuenez, eleberri honetan presente dago une oro. Bigarren kezka galdera hau sortzen du: ze herri daukagu, eta nola funtzionatzen du herri honek. Alde

MANU ETA FINA

Aurkezpenean Iñigo Cabacasen aita eta ama egon ziren. Liburuak Poliziak eragindako bortizkeria, torturak, heriotzak... jorratu, eta mezu ofizialez harago dagoen errealitate gordina islatzen du.

ERRONKA

«Non bizi, zer idatzi. Hori da erronka». Hori adierazi zuen bere burua idazle eta ekintzaile gisa agertu zuen Edorta Jimenezek. «Ni hemen bizi naiz eta hemengoa idatzi nahi dut»,

SU
BI
DÓN

PUBLIZITATEA

Badago mundu bat

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

AZKENAK



horretatik, Edorta Jimenezek Bizkaian eta Euskal Herrian «sare klientelarrek, txiringitoeak, ustelkeriak» nola funtzionatzen duten azaltzen du. Eta azken kezka liburuaren mamia islatzen duela aipatu zuen Txalapartako ordezkariak, hau ere galdera batekin azaldu zuelarik: «zergatik dute txakurrek pertsona batzuk baino eskubide gehiago?». Ondo ekarritako galdera, txakurrek berebiziko garrantzia baitute eleberri honetan.

«Guk okerrik inoiz ez»

«Errealitate beltza» islatu du Edorta Jimenezek, heriotzez, bortizkeriaz, ustelkeriaz beteta dagoen errealitatea. Baina berak, lanean erabili duen ironiari helduta, zorrotz, azaltzen dena «Bizkaia zuria» dela esan zuen.

«Guk okerrik inoiz ez, edozer gertatuta ere». Filosofia horrekin aritzen dira, bere aburuz, zenbait alderdi ustez demokratikoak. Hau esanda, 2012ko apirilaren 5ean –Iñigo Cabacas orduan hil zuten– bera eta lagun bat San Mamesen izan zirela azaldu zuen, Europako partida ikusteko, eta estadioa inguratuta zegoela gogoratu zuen, ertzainez josita. Eta liburuiko protagonista den ertzain jubilatu ere bertan kokatzen du, han gertatutakoak «katarsia» eragingo diola gaineratuz. Gau hartan jazotakoaz, Jimenezek salatu zuen herritar bat hilda egon arren ez Barne sailburuak ez beste inork ez zuela dimititu. «Ez al dago erantzukizunik?» galdetu zuen.

Zinemari eta telesaileri «erreferentzia pila» egiten zaie liburuan, eta literatura unibertsalari zenbait omenaldi, Raymond Chandlerri bereziki. «Aingeru mendekatzaile» baten tankera duen pertsonaia ere sartu du lanean, eta emakumeak protagonista diren soinu banda.

Beste gauza asko aipatu zituen: sexu identitatea eta haren garrantzia, itsasoaren sinbolismoa, Katalunia, Irlanda... Osagai mordoa eleberria kozinatzeko. Eta muinean, beti, «Bizkaia maitea, perfektua, zorionaren paradisu», edo «krimenarentzat leku perfektua». Bata edo bestea ote den, irakurleak erabaki beza.

gaineratu zuen,
«ez naiz
ezkutatuko».

naiz: Retweeted



Ariane Kamio
@arianekamio

Bell Hooksen "Feminismoa denon kontua da" euskarara ekarri du @katakarak54 argialetxeak: Amaia Apalauza itzultzaile&Mari Luz Esteban hitzaurregile. Harkaitz Canok "Fakirren ahotsa" azken nobela aurkeztuko du @armiarna rekin. Udazken uzta



6m

naiz: Retweeted



Iruindarra
@naiz_iruindarra